ORRILLA
30
Eguena
Bilbao, 1935

EUZKADI

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 Irko, iru ile.
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-Itunmena 62,00 » urtez
Atzarrijetakuak 100,00 » »
Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.997 zenbakija

Egunekua

Jauna-Igokundia

Gaurko goizpakijak diñoskunez, Josu'k mayan aurkitu ebazan ikasliak berbizkunde-zinistian oztxu idoro ebazalako, agiraka artu ebazan.

Gu, be, irakurle, zinistian otzituta Josu'k idoro ezkaizan, kistar-zinistian sendotu gadixan.

Jauna-Igokundia bide dala kistar-zinismenian sendotuteko, guk euzkotarok, oturа edef bat ba-dogu beñepein: gaurko egunez notin bakotxak berogei ziniskai edo "kredo" otoiztuteko otura berezija baxen kistara.

Jauna-Igokundia edo geyenok esan oi-dogun lez "Asentzijo" egunian berogei "kreduok" otoiztuteko dogun otura edef onek, bere zijua dau: Berbizkunde egunetik Igokundera bitartian igaziriko berogei egunak.

Eta otura au, euzkotaron artian erotiko oturea eztanik, iñok eztau esango. Gure aurretiko atita zarak be, "Asentzijo" eguneko "kreduak" ardura aundiz otoiztuten ebezan, ba.

Eta ziniskayen bat eratuta-edo otoiztu barik itxi ezegijen be, berogei artagaraun edo beste garaunen batzuk eskuban artu oi-ebezan. eta banan-banan eskutik ontziren batera aldatubaz, azkenengo garaunarte ziniskayak otoiztuten iñardu.

Euzkotaron zinismena olakoxe sendua da. irakurle.

Gauf eguneko sendotasunaren bari ain zuzen be eneuskixube esango. Baña gure gurasuak bixi ziran aldijan, Igokunde eguneko berogei ziniskayak otoiztu barik, eztot uste euzkotar bat bera be oeratuko zanik.

Igazi diran berogei urtiotan, euzkotaren kistar-ziniskeriaren ganera be, ixotz apur bat jausi ete-danekua esan lei.

Ixotz au, baña, ezta berton sortuba, atzeri-zalekerijak ekari dauskuna baño. Gaztelerea sartu da, ba, Euzkadi'n, eta gaztelea sartu danezkero, euzkotaren kistar-zinismena letuten asi da.

Euzkotaren zinismena sendotutia gura ba-da, euzkotaron izkuntza ta euzko-otura bedegarak sendoten asi biarko da.

Eta otura ta izkuntza sendotze onetan, euzkotar oron laguntzea biarko da, ta ez orañarte jazoten dau lez, euzkotar abertzaliena bakarik.

IV Olerti-Eguna

Bagila'n 2'garena, beriala yatorku. Beraz egun oretan Bedoña'n ixango dau IV Olerti-Eguna be bai.

Egun oretan Bedoña'ko eritxu begikuan ixango diran txadon-jai ta enparauko ja yen egitaraba, garaiz iragari zan. Beraz eztago bariro iragari biarik, euzkotarak bein ondo entzuten dabena aiztu barik eukijen erimiak dira-ta.

Eguraldija be ondubaz yuakula uste dogu, ta datoren igandeko "Olerti-Eguna". ixenari yaokan lako egun alaya ta loratsuba ixango danaren antza artuten dautsagu.

Egun oretan omenduko dan olerkarijari "Loramendi" eritxon. A ixan zan zalako olerkari batentzat, ixen egokijagorik ezin eukian idoro.

Orain, an, goyan, donokiko lora-artian aurkitzen dan eriñotzez burestunduriko olerkarijak, bere aintzazko jaya udabari-antzo ospatu dedintzat, goiko lurinkaiz lurunduriko egun loratsu bat bidalduko dauskula uste ixan geinke, "Loramendi" baten omen-eguna, loratsuba ta eguzkitsuba ixan biar da-ta, Aintza "Loramendi" olerkari jayuari.

Aberri-Eguna

Euzkotarok Iruña'ra juateko eguna be, uratubaz yuaku.

Garantzidun egun au datoren ilan 16 'garenan dala, eztakigula aiztu. Egun oretan, bagilan 16'garenan, Iruña'ra juan al-garan gustijok igitu biar gara, ta an geure nabartar anai bijotzekuen urijan, euzkotarak garala erakutsi.

Baña kontu irakurle. Ezkagixala, gero, iñok, atzeritartzat artu. Iruña'n, eta enparauko ingurubetan be, onezkero jakitun dagoz euzkotaron Iruña'ratute ta bertarateko daukaguzan zijoetzaz.

Euzkotar euzkeldunen ixenaz juango garala be, bai-dakije.

Eta gugandik entzun gurako daben izkerea, edo gitxijenez be, gugandik entzungo daben izkuntzea, euzkera ixango dala usteko dabe, euzkera ta euzkotaron eskubidien aldezle euzkeldunekandik, besterik itxaron be ezin leike-ta.

Bizkai'tik gixatalde aundijak juango dirala uste dogu, ta bai Gipuzkoa'tik be.

Bizkaya'n eta Gipuzkoa'n, ondiño, euzkera edefto dakijen abertzale asko dagoz, zorijonez.

Eta IV Aberi-Egunian Iruña'ra eldüko diranen artian be, euzkeraz edefto iñardu leikezan abertzale askotxu juango dirala uste dogu.

Beraz, euzkeraz iñardu leikezan gustijak dagoz egun oretan geure ele matian iñarduteko biartuta.

Geure-geuria dan izkuntza edera, euzkotaren ezaugaririk edefena dan euzkerea bazteftuta, geu atzeritaren janzkijaz agertuten gatuzan gaztelaren izkuntzea erabiliko ba-gendu, Ama-Euzkera saminduba gandik zigorkada edefak irabiziko gendukez.

Beraz, abertzale, olako baragarikeririk jazo eztedijantzat, aberi-elia dakijen gustijak, aberi-elia erabilteko biartuta dagoz.

Eztakijenai olako biarkunik ezin agindu leijue, sagarari madarija eskatutia, alperikua dala esakun zarctan irakurten dana da-ta.

Baña dakijenai eskatu egin biar yake. Eta eskatuten yakena egiten ezpa-dabe, neurtu biar diran lokariz neurtu.

Aberi-Eguna'k ospatuten doguzanian, Aberi-Elia'tzaz ezertxu be ez ete-dogu egin biar, ba?

Igazko Aberi-Egunia'n Gazteiz'en jazo zanik, eztatela jazo: "Euzkera-Omenezko euzko-antzerkirako, euzkeldunik ez..."

¡Aberi-Eguna...! Yaoken neurtu aintzaldu daigun geure Aberi-Eguna.

URIBITARTE'TAR IBON.

DEUNAN BIXITZA

MAMERTA DEUNA, GOTZAÑA

ORRILLA 11'GARRENIAN

Boskaren eungijan ixan ziran gixonik ospetsubenen artian Mamerta deuna etzan azkenengo malan geratu. Doibatzak Irakasle entzutetsubak eukozan, aldi ilun aretan, ba, gixon argijak biar-ixan ziran.

Viena'ko urijan ludiratu zan Mamerta. Uri edef a etzan gaurkua lakua. baña aldi aretan, be, garantziduna zan. Jauparijen artian Mamerta'k entzute andija eukan, elizkoya ta jaungoikotija zalako. Beraz, ba, eriko agintarijak eta jauparijak egin eben batzarean Gotzaintzat autu eben Mamerta deuna.

Egun txarak ziran egun areik. Noxian bein zigortaldi gorijak bialdu daruaz Goiko Jaunak, ludiitarak Beraganatu dedixantzat eta orduban, be, oidalako lur-ikarak, ekatxak-eta sortu ziran. Lari ebiltzan Viena'ko biztanliak, baña euren otura txarak ezebezan bazteftzen.

Kisto geure Jauna'ren Berpizkunde-Eguna etori zanian, Gotzañak dei-egin eutsen kistarai eta Jaunartze orokar bat egin-egijela eskatu eutsoen, alantxe, ba, baretuko zala Goiko asaria-ta.

Larunbata deun edo gureneko gabaz eriko biztanlerik geyenak elexaratu ziran eta otoika ordubak igaroten egozan bitartian, uriko txaide nausiko etxiak subak artu euzan. Sugar ikeragarijak ziran alde gustijetatik eta elexan egozanak arin-arinka aldendu ziran, ertxadona bera be, ereko zalakuan.

Gotzain ona bakar-bakarik geratu zan eta negar-zotiñen bidez loftu eban Jaunarengandik sutzar arein amaya. Eliztarak itxuli ziran oindi-aurera ta otoyen bitartez eskerak egin eutsezan Jaunari.

Olako alatzak zirala-ta, Gotzain deunak erabagi bat artu eban: Kisto'ren Igokunde-egun auretiko iru egunetan barau ta otoyak egin biar zirala agindu eban. Erogatiba areitara uri gustija bildu zan eta ango negarak eta oyubak zeruragiño eldu ziranian, betiko aldendu ziran alde areitako ezpiarak.

Erogatiba areik Jaungua'ri atsegingari yakozala igari eben kistarak eta beriala alde gustijetara edatu ziran. Sarkaldeko Doibatza'k beretzat artu euzan eta orduz gero ludi gustijan egiten diran iru eguneko arentza oreik.

Mamerta deunari zor ixan yakozan beste ekandu on asko, be, Bere eliztarak zer egiten eben eta nondik ebiltzan jakiten ebanian dei-egin ostian, zeruko bidiak erakusten eutsezan. Deun onek aurkitu ebazan Julen eta Ferela ziñopaen gorpuzkiñak. Ziñopa oneik eraildubak ixan ziran Diokletziano eta Maxima'ren bakalduntzan. Arein omenez ertxadon edef eta gotija iragi-eragin eban.

Mamerta deunaren lan aundijak garantzizkuak ixan ziran, batez-be Sorkaldeko kistarentzat. Amaikatxu ereji ta dongekeri ibili ebilan kistaren artian. Eskerak Gotzain agurgari arei, argi ta garbi geratu zan Kisto'ren ziñismena Larogei urtez gotik ebilala il zan Mamerta Gotzaña. Viena'ko uri-onduan eguan Beldunaren ertxadonan ilobija emon eutsen, baña aldijak gora ta bera, Orleans'eko urira eruan eben.

Amaseigarren eungirarte antxe egozan. Orduban Hugontetarak urijaren buru-egin ziran eta Mamerta deunaren gorpuzkiñak atera euren ilobijetatik eta ere ebezan. Gero auts-ere done areik ibaira jaurti ebezan. Baña Gotzain on aren oneraspena ezta aiztu, France eta Austri'ko kistarak mate dabe. Arentza asko egiten dautsez eta lateri orein Zaindaririk onenatarikua dabe.

Txorimalua'ren Egazkadeak

II EGAZKADEA

Txorimalua ainbeste berak ez aturiko gauza entzuten asperituta leguan: zortzi bidar gaiztetsi leban berak "doniel-atxa" itza esan-biara, aintze erdijan, ba, berari atsegin etxakozan ainbeste tentelkeri entzun-biara ixan leban-eta.

—Onako bi ikusterik gatxa ixangok: onek yarabilek erabilteko auzija. Batak au esan ba'dau, bestiak ori esan-barik itxi ba'dau... Guri euzkeldunoi beste gustijak dana-dala esaten dabela "bost": au esaten dabela, bestia esaten dabela, "or konpon Mari Anton".

Une onetan Txorimalua egarijak jo leban eta batera ta bestera begira asi zan:

—¿Plaza-mutilak nun-dozak?, dei-egin leban.

—Nungo plaza-mutilak diñozu?, erantzun leutsan Ganeko'k.

—Nunguak ixango dira, ba, emengoxiak ezpa'dira? Estarija siketuta daukat ¿bai? ta ardau-pitin bat eratekо.

—Eta plaza-mutil oreik zer egingo dautzube, ba, ¿ardaua ona ekari ala?

—Oba ez, onako egunetan plaza-mutilak ona etorten dan gustijai emoten dautse ardaua

—Orixe edefto, jardun zan Ganeko, orduban egari-zarala ta ona etori ardua edateko

—Ez zera! Zetako dira ba plaza-mutilak? Zuk, itxuraz, eztakixu emengo oturarik.

—Plaza-mutil edo dalako oretan ez beintzat.

—Ba, neuk atzalduko dautzut emengo oturea gauza oretzaz. Eta ori esan eta batera. ¡Eup! ikaragarija egin leban, eta bapatera plaza-mutil bat etori yakan ardaua eskiñijaz. Txurututa edera egin leutsan eskiñi leutsaen zatuari; gero Ganeko ta Joseba Mirena'ri eskiñi leutsen, onek baña egaririk ez-edo ta ezetz esan leben.

—Emen auxe oturen da baseri-jayetan (baseri jayetan bakarik gero): auzunako sei edo saspi mutil ixaten dira plaza-mutilak; plaza-mutil oneik onexek egiten biartuta dagoz: goxian eta artatsaldian lenengo aureskubak eurek egin, txirularija baseri jairako ekari, txirularijari edozein unetan ardaua eskiñi, beste edozein mutili aureskuordez ardaua eskiñi, plazako arazo gustija eruan, eromerija noiz amatuko ta asiko dan esan, eromerijara etorten diran gustijai noxian bein ardaua eskiñi, artatsaldeko jai gustijan eurek aurenengo ixan, edozein auzi sortu ezkero ebatzi, ta guenez, moskortxo bat arapau be bai...

—Tira, tira, txarto be ez, erantzun leban Ganeko'k.

—Ez txarto, ta txarto-ondo, edefto baño.

—Noiztik ezagutzen dozu oturа au?

—Au batepaki nozkua dan, ni nazan gustikua bai beintzat.

AGAREL.

Adiskidetasuneko izketaldi-antzera

Basarri

(Amaya)

Orelaxe ixan zendun ba Poloni. Eleiz gizon jator asko izan du ta ori eskerak. Silesia arunt galdua zendun. Aundiki mota guziak "alemanduak" zeuden, ta eria ere bide ortara zijoan, baña Silesi oro katolikoa zalarik, eleizan zuten beren babesa, ta eleiz barutiko gizatasun agermenez bide oneratu ziran; benetako Poloni'tar egin ziran.

Erusia'ren menpeko Poloni zatia ere alatsu ibilia dezu.

Beren izkuntza ixilka erabili bear izaren zizuten. Bizileku bakanetan, iñork salatuko etzituen lekutan egiten zituzten beren izkuntzazko ikastaroak. Baso menditan ere bai sari; eritik kanpo beintzat. Jai egunetan ta azke zituzten unetan, ezkutuka egiten zituzten euren egitekoak. Polonia'r abertzaletasuna zigor artean azaldu zan; beti arantz minkorez inguratua. Aiek euren kultura, izkuntzan, alde egindakoa ez degu iñoiz aztu bear. baña belduf naiz...

Ikusten dezunez, guk azkatasunik asko ba-daukagu. Jaien jaiero zabalkundeko itzaldi ta bilerak dauzkagu. Bost mila ta amar mila euzkotar noiz nai biltzen gera. Aberi Egun aundi oietan irurogei miletaraño iritxi izan gaituzu.

Egunetik egunera. gure alderdiko "lixtak" geitzen dijoaz. ¿Ta euskera? ¿Nola daukagu? ¿Iraungo al-du?

Azkenik ori galdetzeraño iritxi gera. Euzkerak iraungo ote duan galdetzeraño. Ez degu len esandakoen antzik.

Eritik aldeginda, etxe bakanetan, zelai zabaletan, jai egunak ortarako artu ta geure elea ikasten, gure edestia irakurten, ikastarte edo (vacaciotan) artaraxe jarita, geure yakintza (kultura) lantzen ta sendotzen ez gaituzu gu bereala asiko Polonia 'ren gixa. Aizu, ta len ez dizut esan. Esan bearik ere ez daukat zeuk ere ongi dakizu ta. Badakizu gudate aundi aren ondorena. Ba-dakizu, ain zigortua izan dan Poloni nolatan askatu zan. Ezin luzatuko dizut geiago. Egun auetan beste beri bat ere jasoko zenduan. Polonia're azkatzalea zan Pilsudski il dala. (Goietan bedi).

Izketan ari naitzazularik negargurez jartzen naiz. Geure kalitxo oni maiteki begiratzen bai diot. Idazle denak ni bezelaxe zotinka nabaitzen dizkitzut. Euskeraren ondamendia nabaituta. euskel-idazleak negarez dituzu. Eritako izperkari gcienak ere, beren eritan euskera galtzen ari dala adierazten dizute. Berogei mila abertzale batuta. ikuslerik ez dalako eusko-antzerkirik egin gabe gelditu bear ixan dala jakingo dezu urena. Euskal-liburu gutxi argitaratzen dala, ta guzia irakurleak uri diralako esango dizute: egileak galdu egiten dutelako. Ta dena orela; dena galera, dena ondamendia. Au ikus ondorean, egintzak atzera utzita itzez puzturik gabiltzala ikustean, Aitzkori'ri begira erneki jaririk, ain olerkari sendo, ta lañope zakar ontan ain negarti agertzen zaigun Jauregi 'tar Koldobika'rekin batera esango dut:

¡Ai! baña noispait beren semeak ilko ba-
[lute
Euskera beren etxean,
lotsaren lotsaz sartu, Aitzkori, sartu betiko
zure buruan lurpean...
¡Euskal mendiak...! ez, ezegon gutik Ama
[il duten
eri gaistoen aurean.

EUZKOTAR UMIEN ALDEZ

UMEAI AZIERA ONA EMATEKO AGINPIDEA NOLA IRITXI.—(Azkena).

"Ez ete nabe ba neure semeak maite?
Bai, neuk eurak ainbeste."
François Coppée ("Senacherib").

Umeagan aginpidea irixteko gauzarik txarena, umeen aziera ona betiko galtzen duana, eta guraso baten nai bestearen alegin guziak alperik galtzen dituana da guraso biak, bai aita eta bai ama, alkarekin (umeen aurean beintzat) aziera gauzetan berdin ez etortzea.

Umeen azierazi buruz, guraso biak iritxi batekoak izan ez aren. umeen auftan beñepen iritxi berdiñekoak agertzen ez ba 'dira, umien aziera onak—nere erian esan oi duten bezela—"egin zuan".

Esaterako, aitak umea zigortu eta amak barkatu egiten ba'dio, naiz amak egitada bat txartzat artu eta aitak ontzat, batek gauza bat ukatu eta besteak laketu, ume oyek ez dute aziera onik iñundik ere izango, ez esana egiteko oiturarik, ez gurasoenganako lotzarik.

Eta amak asere egindakoan aitarengana iuango dira, edo aitak gauza bat ezetz esandakoaa amarengana eura knai dutena lortutzeko eta ez aitak ez amak ez dute aginpiderik umeagan izango.

Umeagan aginpiderik ez izatea, asere asko egin, eta zigor asko agindu baña batere ez ezartzeak ere egiten du.

—Ume, utzi ezaiozu izpaingiari eta artu egizu liburua biarko ikaskizunak ikasteko. (Umeak yaramonik ere ez).

—Ume, biarko ikaskizunak ikasteko esan dizut, bestela ez dizut apaitan matzik emango (Umeak gorena).

Ume, artzeko liburuak bestela apaldu gabe juango zerala oera. (Amari, zigorik ezartzeko asmorik ez du ta, astu zaizkio lenengotan eskeñitako zigorak, eta umeai liburua artzeko esaten dion bakoitzean zigor beri bat aitatzen dio.

Umeak beriz bai daki amaren zigorak itzezkoak bakarik dirana, ta, ez ta yaramonik ere, arik eta EUZKADI osoari lau bira eman artean. Orduantxe astiro, astiro kolpe egingo dio liburuari.

"Au egingo dizutala" ta "bestea egingo dizutala" orenbeste zigor aitatu bearean, zigorak gutxitan aitatu eta agindutakoan bete egin eskero, gurasoen aginpidea sendotu egiten da eta umeai bildura sartzen zayo. Eta bilduf au, guztiz osasungarria du umeak.

Ez det aitaren eta amaren bildura esan nai, zigoraren bildura baizik, eta bilduf onekin egunean eguneko diadarak kenduko ditugu ta pakean biziko gera gurasoak eta umeak.

Beti asefean eta beti diadarka umeakin jarduteak, beste kalte bat ere ekari oi du.

Umeak, bere eruz dan aren ez du onela ikusi oi zerbait aunditxoa egiten danean. Zegaitiari begiratu gabe. beti erietan eta beti asere dagoan ama bakarik ikusten du, eta bere etxeak gogait eragiten dio, aspertu egiten du bere amaren betiko jardunak, eta etxean baño kanpoan obetoago bilatzen du bere burua. Eta au arixku aundiko gauza da umearentzat.

Aundi izatera eltzen danean, amabost amasei urte dituanean, bai leike lotza gutxirekin bere amari egunen batean erantzutea: "Zaude ixilik. ama, beti orela beriketan ekin gabe, bestela bein juango naiz etxetik eta ez nazu geyago ikusiko. ondotxo ere ondotxo aspertuta naukazu ta."

Ai au esaera lotzagabea ta eskef gaiztokoa seme baten españetan!

Ama baten biotza erdibitzeko naikoa ta geyegi da berau.

Baña ama onek, berak bere buruaren gañera ekari duan aria dala ezin ukatu gentzake.

ARITOKIETA.

INGI BILDEGIA
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

Dr. R. Aranburu
AZALEKO SENDAGILEA
Egunero 11-1, 4-7.
FUEROS, 5, tercero. — DONOSTIA

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

Irakurri EUZKADI

Errijetatik

URDULITZ

IDI-INDARKETAK. — Eri onetako udalak eriko-jayak dirala-ta ila onen ogetasei garenerako ta Bagila'ren bigarenerako idi-indarketak imiñi dituz ta sari onekaz: Ari aundirako iru-sari ogei, amar ta bost ogerleko ta ari txikerak beste iru sari, amabost zortzi ta lau ogerleko, baldintz edo kondesinoak indarketa onetako udaletxian idoro leiz.

ERIKO-JAYAK.—Jaunaren: Igokundia ospatuten dogu eri onetan ta ori dala ta eleiz jai ta jolas aundiak izaten dira, aurten jai oneri jagokon txonitz edo sermoya egiten Gernika'ko jaupalburu dan Iturаran jauna datorela entzun dogu, jolasa bariz uste dogu beti lez zikin-oratue ixango dala milagro ezpada.

BATZOKIA-IRIGITA.— Egun batzuk da geure Batzokia zabaldu dauzkuela, baña ondiño ostakigu zegaitik euki dauzkuen itxita zazpi ilabetian, baita, eztakigu nora eroan ebezan geure ikuriñak be, au dok aundie.

BATZARAK.—Igandian ogetaseigarenean batzara izango dogu Batzokian, Bilbao'n egingo dan batzarerak ordezkoa aututeko, ta bagila'ren lenengo domeka'n Uri-Buru-Batzar barie aututeko, uste dogu alderdikide gustiak etoriko dirala.

OSATUTA.—Ainbeste egun ogeratuta egon da kalian ikus doguz geure adizkide diran Bilbao'tar Ermenegilda ta Ansoleaga 'tar Eusebi Poztutcu gara.

TXIRERI.

ZORNOTZA

Aspaldiion lanpetuta ixilik egon naz. Orain be, nai dodan bestian azkatuta ez naguanaren, "Edozein", "II Edozein" eta "Emakume bat" idazle trebiak idatzi dauskubena irakurita, ¿nor idatzi barik egon?

Antziña, "Urki,,'ren idazki solak baño etziran ikusten. Geruago, "Gaztelu-Gane", "Bizkargi" ta abar.

Gauf, edozenbat idazle urten dira. Oro ezagun eta lagunak ixango gara, baña nortzuk garan eztakigu.

Alkar ezagutu, geure elian bariketa-aldi batzuk egin, eta alkar maite ixanda, aparitxu bat alkaraz egitiari, ¿zer deritxazube?

Ganera euzkeldun barijak ba-dira, gogo bixiz euzkerea ikasten dabiltzazanak. Onei, dagijen lan txalogarija goratutia, ta euren arluan aurera jarartuteko adoretu dadixantzat-eta, sari batzuk ixentetia be, biarba onurakora ixango litxateke, euzkeldun barijokandik idazle trebiak urten leikezelako. Onixek gauzatxubok eratuteko baño ezpa'litz be, len atatu dodan aparitxuba egokija ixango litzakelakua deritxat.

Alkaraz atu barik egingo doguzan lanak, lan utsak ixango dira. Alkaraz ondo atuta jardunezkero, bariz, euzkerearen onerako ixango litzakezan, ¿zenbat lan edef ezetegendukez egingo?

Guramena betetuteko, indara biar dogu. Soña txirua ta indargia ixanaren bijotz berodun goguak geure-ingurubetan be ixango doguz.

Itz - egixube, ba, ta zeuben gurarija agertu.

Bijotzetiko agurik beruenak dagitzubetaz, eta zoli ekin asi dozuben arlo ori, euzkera-aldez egiteko lan aundija dago-ta.

IDAZTI BARIJA.—Agire'tar Joseba Andoni aldunak idatzi daben "Entre la libertad y la revolución" idaztija, Bilbao 'tar Jagoba ta Isusi'tar Gabin'en etxietan salgai aurkituko dozubez. Beraz idazti ori erosi gura dabenak, abertzale zintzo orei eskatu.

Idazti au garantzi aundikua da. Bera irakurtian, atsegin aundija ixan dogu. "Ni abertzalia naz" esan eta beste barik nasai geratuten diranentzat, ikaspide edefak dauz.

Abefkide mate orek, erosi ta irakuri egixu, eta etxatxun damutuko, idazti oren gaya ta mamiña atsegin ixango yatzula eskijef nago, ba.

URKI.

卐 卐 卐

Ila onetan irugarenez artzen dot idazkortza lero batzuk idazteko asmuz. Neure gogua da emengo abertzaliak irakuri dagijen, alan, eurak be, neuk lez, gerotxu bago euzkeraz idazten asi datezan.

"EMAKUME BAT,,'ERI.—Ondo agertzen dozu zeure abertzaletasuna ta jakintza aundija. Neuretzat idatzi dozuzan lerak lar edefak dira. ainbeste ta gitxijago be, eztot irabazi. Neure baruko atseginasunaz naikua dala uste dot. Zeure itandubai erantzunez esango dautzut orain-arte ez-ba'dot idatzi jakin-ezagatik ixan dala.

Zeuk euzko-abertzaletasuna ilun-ilun ikusten dozu, baña eztozu aritu biar, alderdikide gustijok eta baña abertzale diranak alegin gustija egin biar dogu oldozte-aurez, euzko-erija agertzeko ludi-begijetan.

"Ibon,,'ek idatzi eban lengo egun baten eri askotan Batzokijak arotzaren "Casino,',en antza daukiela, ba onetan lez, geure Batzokijetan para-para dabilela erderia. Au alan bada geure gastetxubak ¿zelan eztabe egingo erderaz? Baña, au gora-bera, abertzale zintzuak garala esango dogu.

Lengo larunbata gabian "Lauaxeta,,'k itzaldi edef bat egin eban Zarautz'en, beti lez, "Lauaxeta,,'k euzkereari buruz esan eban:

"Ez daukagu euzko-eririk eta au-da lendabixi egin biar doguna". Itz onek goguan eukiten ba'doguz euzko-abertzaliak ixango gara, bestela, arotzaren antza eukiko dogu.

IRUÑA'RA.—Uste dogu igande onetarako belbila gertu egongo dala, onena ixango litzake ba, Iruña'ra juan gura dabenak, gauf Batzokitik juatia.

ILETA. — Lengo aratsaldeko lauretan, "Banco de Vizcaya,,'ko diru-zaña ixan dan Erkaltza'tar Karmel il zan.

Gixon bizkor ta zintzua ixan da benetan. Igandian goxeko amaika ta erdijan bere gogo-aldez elizkixunak egin ziran. Bere sendi maiekorai atsakabian tzen dautsogu.

Irakurle, bere gogo-aldez otoi eg gun.

EDOZ

DONOSTIA

BELGUNTZA-ALDE.— Iragar gon bezela igaro dan igandean Ku antzokian ospatu zan euzko-jaia G Mixio-alde. Itzaldi, abesti, dantza te jai-aldi gustiak oso goi malan e ran eta ostez ere eruz bildu za -onak.

"POXPOLIN".—Aldi askoetan dan euzkeldun aurtxoentzako "T argitaltzen dijuaz eta euskera m gun gustiok beartuak gaude arpid erosteko gure aurtxoen eta e alde

ABERI-EGUNA.—Beñere bañ tasun aundiagua emen nabaitzen d ña'n egiñen dan Aberi-Egunera aundiak egun aurretik oñez jua

BELATARIAK.—Nundik nora eta beste burdiak kaletan erabilte laz kale-ertz gustiak bolatokin udalak iari ditu. Gestoran konte pro nobis.

BOLATARIAK.—Nundik nora ekartzen duten bokarta, ostera bota bearean arkitzen dira emeng tzaleak.

JOSE

BILBAO

Emen agertzen yatzube gauf be kaldun bari bat, bere alegin gusti kera erabilteko egiten dabilan kit loftuko ba-dot neuk gura ño alan da gusti be, itxaropena e -biar eta alegiñak getu, alik et euzkera ikasi-arte. Zelako gaua dan geure euzkera! nik enekijan edera zanik eta oindiño-be, ondo arren be... zelan atsegin yat emb tia! Eta Euzkal-atal onetako b irakurle gustijak agurtuta, zeozer tzi-biar-odala gogoratu yat.

Igaro dan larunbata aratsaldan -Gastedi'ko batzar-nagusija ixan tako bazkide nazan lez, an ixan neu be. dire ustez beste urtetan b geyago ixan zan. Zuruburu bat -ebilan eta oregatik edo ixango-n

Lendakarija edefto egon zan be tzunetan. Gero autatu ziran biar garen iendakarija, diruzaña ta b bi eta gengozan gustijok Euzko ren Ereserkija abestu ta amaya g tson batzar-nagusijori.

Zorijonak agintari barijari ta b zintzo Euzkadi aldez orain arte

ZABALANDI'KO

EIBAR

ITZALDIA.—Larunbatean, A ko pelotalekua beterik aurkitzen nazasoro'tar Karla "Altzeta" itzaldi bikain bat entzuteko au gendun eibartar abertzaleok. A edo presentaziñoa. Eusko-Gazte kari dan Azkoaga'tar Gilelma ja eban. "Altzeta" agertu zanean, undara gogoa jaiki zan. Emen erantzunaz etorela itz egitera, e asitzeko; ta gero gai au era "Eusko-Abendaren ekandu ta

NASKALDIA. — Lengo b aguftu genduzan Arazola'tar Markiegi'tar Gontzane ta So Berazaluze'tar Eskarne.

—Portugal-aldian ibilita e Artamendi'tar Estanis bere se

—Leon'dik Egiguren'dar A Muguruza'tar Julen. Ongi etori

OSTIKOKETA.—Igande g sate'ko Maala zelaian, emengo eta Bergara'ko "Beti Gaze eben. Garaipena emengoena izan aundiaz: 4 ta 1 geratu ziran beti, makal-usain barik.

MARIAREN ALABAK A Joan dan igandez batu zira emengo, Elgoibar eta Soraluze aren Alabak. Orilaren azken zala-ta, beren Amari maite-agur Eleizkizun ederak izan ziran. Meza Nagusia Mariaren Alabak pleak abestuta, Ama Birjiñarekin guru ta guzti. Aratsaldetik, biga gari, il guztian eruan izan dira lak eretzea, Magnificat abestu di badaezpadakoa egin zuan, be, bosteunetik gora izango ziranak.

EZKONTZA.—Igaro dan a kondu dira Arate'n Lopez'tar G Artamendi'tar Jule. Zorionak e kotan izan beitez alkaregaz.

ELIZ-DEYAK. — Igandea Sanchez'tar Koldobika eta Aran xime'ren eliz-deyak. Baia Lau Joseba ta Arilaga'tar Andone Zorionak.

IZPAR BALTZA.—Santa A zan eguaztenez Aranzuru'tar Jo Eguenean egin ziran eleizkizun asko batu zan. Laguntzen dautsag bean bere etxetarei.

GAXORIK.—Arilaga'tar Ibai tetxean ebakuntza eginda dago Babesne andra ezaguna. Lekuko bedi.

Ta datoren astera arte, Jaiko

IBARRANGELUA

Igandean ixan eben Ibarrangelu kume Abertzale-Batzak, urteko nagusija. Araudiko gora-berak e doren autu ebezan batzordeko ba emen euran ixen-abixenak:

Lendakaritzarako: Elorriaga'tar

Lendakaritza ordezko: R. de Abadia'tar Osane.

Idazkaritzarako: Monasterio'tar 'tar Miren.

Idazkaritza ordezko: Elorriaga guren'dar Elbire.

Txindi-zaintzarako: Iribar'en Pirmitibe